

**EUROPAKO JUSTIZIAK BERRIRO EBATZI DU  
ESPAINIAKO GIZARTE SEGURANTZAREN ARAUTEGIA  
DISKRIMINATZAILEA DELA  
JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUEI DAGOKIENEZ**

Txostena

2019ko maiatza



[www.lab.eus](http://www.lab.eus)



## AURKIBIDEA

EUROPAKO JUSTIZIAK BERRIRO EBATZI DU ESPAINIAKO GIZARTE SEGURANTZAREN ARAUTEGIA  
DISKRIMINATZAILEA DELA JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUEI DAGOKIONEZ..... 05

ERANSKINAK:

1.- HEGO EUSKAL HERRIAN EMAKUMEEK JASOTZEN DUTEN BATEZ BESTEKO PENTSIOA,  
GIZONEZKOEN ALDEAN..... 09

2.- JARDUNALDI PARTZIALAZ ARITZEN DIREN LANGILEEN PRESTAZIOAREN KALKULUAREN ADIBIDEA,  
INDARREAN DAGOEN ARAUDIAREN ARABERA ..... 11



## EUROPAKO JUSTIZIAK BERRIRO EBATZI DU ESPAINIAKO GIZARTE SEGURANTZAREN ARAUTEGIA DISKRIMINATZAILEA DELA JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUEI DAGOKIENEZ

2012ko azaroaren 22an Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak eman zuen epaian eta, gerora, Auzitegi Konstituzionalak emandako beste ebazpen batean (1/2013), zera adierazi zuten, Espainiako estatuak jardunaldi partzialeko enpleguen kotizazioak zenbatzeko eta erretiro pentsioak kalkulatzeko zerabilen araudia zuzenbide komunitarioaren kontrakoa zela, 79/7/CEE Zuzentaraua urratzen baitzuen. Zuzentarau honek ezartzen du gizarte segurantzaren arloan emakume eta gizonekiko jokabidea berdintasun printzipioan oinarritu behar dela.

Jardunaldi partzialen zenbaketa araututa zegoen moduan, pentsio txikiagoak sortzez gain, pentsiorako eskubidea zaildu ere egiten zuen, gutxieneko gabealdia edo "karentzia aldia" akreditatzeko, lan egindako askoz egun gehiago behar baitziren. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak zeharkako diskriminazioan oinarritu zuen bere epaia, hau da, arau, irizpide edo praktikaren bat, itxuraz neutroa izan arren, pertsonak desabantaila egoeran kokatzen ditu beste sexuko pertsonekin konparatuta. Horixe da jardunaldi partzialekin gertatzen dena, epaiak azaltzen duenez, kontratazio mota honen pean batez ere emakumeak aritzen baitira.

Honen ondorioz, bi ebazpen hauek indarrean zegoen arautegia gaitzetsi zuten kotizazio esfortzu handiagoa eskatzen baitzieten jardunaldi partzialaz aritzen ziren langileei, jardunaldi osoz aritzen zirenei baino eta, hortaz, kasu gehienetan prestazio eskubidea ukatzen baitzitzaien langile hauei (batez ere jardunaldia oso murrizta bazen eta bizi laboralaren epe zabaletan luzatzen bazen). Erretiro pentsioa eskuratzeko, gutxienez, 15 urte kotizatu behar badira ere, momentu hartan aztertu zen kasuan auzitegira jo zuen emakumeak, jardunaldi partzialaren erruz, 98 urte kotizatzerara derrigorturik zegoen.

Ebazpen hauetan kontuan hartu zen araudi honek batez ere emakumeei eragiten diela, jardunaldi partzialaz aritzen diren gehienak emakumeak baitira (%75a, Estatistika Institutu Nazionalaren 2017ko lehen hiruhilekoko datuen arabera) eta honek, beraz, zeharkako diskriminazioa badagoela adierazten du.

LAB sindikatuan, 2012ko azaroan Europako Auzitegiak eta 2013an Auzitegi Konstituzionalak emandako ebazpenen ondoren, Espainiako Gobernuaren pasibitatea salatu genuen, ez zirelako ebazpen judizial hauek betetzen ari; gizarte segurantzaren bulegoetan erreklamazio masiboak egin genituen eta jardunaldi partzialaz kontratatutako emakumeen presentzia handia dagoen sektore eta lan zentroetan informazio kanpaina zabaldu genuen.

2013ko abuztuan, Espainiako Gobernuak, ebazpen judizialek behartuta, Errege-dekretua eman zuen (abuztuaren 2ko 11/2003 Errege-dekretua). Honen bitartez, araudi diskriminatzailea indargabetu eta jardunaldi partzialeko kotizazioak zenbatzeko araudi berria ezarri zuen.

Gaur indarrean dagoen araudi berriak, oro har, aurreko araudiak sorrarazitako egoera bidegabe eta diskriminatzailea hobetu zuen, prestazioak jaso ahal izateko kotizazioen zenbaketa malgutu baitzuen. Hala ere, bere momentuan salatu genuen bezala, **araudi berriak ez zuen aldarrikapena bete, hau da, ez zituen**

**parekatu lan egindako egunak (nahiz eta jardunaldi partzialaz egin) eta kotizatutako egunak. Honela, araudi berriaren arabera, jardunaldi partzialaz lan egindako egunei zenbaketa teorikoa ezartzen zaie, partzialitate koefiziente orokorraren bitartez (aurrerago azalduko dugu zelan aplikatzen den) eta honek kotizazioen kalkulua kaltetzen du prestazioen zenbatekoa ezartzeko momentuan.**

Hortaz, araudi berria ere diskriminatzailea da, jardunaldi partzialaz aritzen direnei (hau da, gehienbat emakumeei) kotizazio esfortzu handiagoa eskatzen zaielako, jardunaldi osoz aritzen direnei baino.

Gizarte Segurantzaren Institutuak eta Espainiako Gobernuak argudiatzen dute, jardunaldi partzialen kasuan, erretiro pentsioa proportzionalki murrizteak Estatuko legediak politika sozialean duen helburu orokorrari erantzuten diola, gizarte segurantzaren sistema kontributiboan zuzenketa hau funtsezkoa baita.

Hala ere, EBeko Justizia Auzitegiak bere momentuan araudia diskriminatzailetzat jo zuen, jubilatutako ahal izateko beharrezkoa den gutxieneko denbora egiaztatzeko, jardunaldi partzialeko kotizazioak kalkulatzeko ziren moduagatik; orain, auzitegi honek pentsioaren zenbatekoa kalkulatzeko formaren inguruan eman du epaia. Ebazpen berri honetan adierazi dute neurri honek pentsioaren zenbatekoa murrizten duela jardunaldi partzialaz aritutako epeei dagokien baino proportzio handiagoz eta, kasu hauetan, pentsioa, entitate txikiagoko lanaren kontraprestazioa bada ere, honek ez duela neurri hau objektiboki justifikatzen. Honekin batera, ebazpenak adierazten du partzialitate koefizientearen aplikazio gehigarria helburua betetzetik baino harago doala.

Jardunaldi partzialeko kotizazioen benetako zenbatekoa aintzat hartzen bada, berez pentsio baxuak sortzen dira, kotizazio hauek ere baxuak direlako, eta ez da beharrezkoa kalkulua berriro kaltetzea koefizientea aplikaturik, gaurko araudiak ezartzen duenez.

Hortaz, Europako ebazpen berri honek bere momentuan sindikatuan egin genituen salaketa eta aldarrikapenak berretsi ditu beste behin ere. **Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak maiatzaren 8an plazaratutako ebazpen berrian ezarri du jardunaldi partzialaz aritzen diren lagunen pentsioa kalkulatzeko sistema espainola diskriminatzailea izan daitekeela. Beti ere Europako auzitegi honen esku-hartzea eskatu zuen epaitegiak (Gaztela eta Leoneko Justizia Epaitegi Gorenak, alegia) egiaztatzen badu jardunaldi partzialeko kotizazioen zenbaketarako araudiak emakumeenganako eragin kaltegarri espezifikoak daukala.**

Hau egiaztatzeko datuak soberan daude, baina orain Estatuko auzitegi horrek eman behar du epaia. **Hego Euskal Herrian jardunaldi partzialeko kontratu guztien %80 emakumezkoek betetzen dituzte** eta honek, beste arrazoi batzuen artean, azaltzen du emakumezkoen pentsioen batezbesteko zenbatekoa gizonezkoena baino %40,6 txikiagoa dela (ikus 1. eranskina).

**Honengatik guztiagatik, eta ebazpen judizial hau kontuan hartuta, LAB sindikatuan zera salatu behar dugu:**

- Ebazpen honek berriro azalarazi du gizarte segurantzaren inguruko legedia eta beronen azken erreformek ez dutela hobetzen emakumeen egoera soziorabiala; aitzitik, neutraltasun itxurapean, diskriminazioa betikotzera datoz.

- Gure herriaren aitopen juridiko-politikorik ezak eta gizarte segurantzaren erabakitzeko eskumen faltak galarazi egiten digute euskal esparruan pentsio sistema publiko duin eta ez diskriminatzailea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea.
- Emakumeak lan merkatura sartu izanak ez du berarekin batera ekarri lan baldintzen ekiparaziorik ezta zaintza lanetan erantzunkidetasunik ere.
- Lan merkatuak emakumezkoen bereizkeria dakarkie, bizi proiektu autonomo eta duina garatzea galarazten baitie.
- Hego Euskal Herrian jardunaldi partzialeko kontratu guztien %80 emakumezkoek betetzen dituzte.
- Emakumeen erreproduzio eta zaintza lan ikusezinak inposatzen zaizkie eta honek galarazi egiten die enplegua eskuratzea baldintza eta eskubide berdinekin; honetaz gain, emakumeak kaltetuak izaten dira pentsioak eskuratzeko momentuan zein pentsio hauen zenbatekoa ezartzean. Pentsio arrakala soldata arrakala baino handiagoa da.
- Gaur egungo pentsio sistema lan/enplegu banaketa sexista eta diskriminatzailean oinarriturik eraikia izan da.
- Aurreko guztiaren ondorioz, pobrezia emakume aurpegia dauka. Emakumeek erretiro pentsio gutxiago jasotzen dituzte eta pentsio baxuagoak izaten dituzte (alarguntza pentsioak, batez ere).
- Etxeko langileen gizarte segurantzaren sistemak pentsio duina eskuratzea galarazten du eta lan honetan emakumeak gehiengo dira.

#### **Txostenean azaldutako egoeraren aurrean, ondoko gai hauek eztabaidatzen eta lantzen hasi behar gara:**

- Lan denbora gutxitzeko eta banatzeko politikak, erretiroa 60 urterekin izatea barne; honek enplegura sartzeko zailtasunik handienak dituzten kolektiboen, hau da, emakumeen, gazteen, migranteen eta aniztasun funtzionala duten pertsonen jardura handitzen lagundu dezan.
- Bizi laboral eta sozialaren arteko kontziliazio eta erantzunkidetasun efektiborako politika feministak, emakumeak enplegura baldintza eta eskubide berberekin sartzeko bultzatu eta bideratuko dutenak.
- Genero ikuspegiaz egindako enplegu politikak, enplegua eskuratzeko, enpleguaren segregazio sexistaren aurkako eta soldata arrakalaren kontrako neurriak barne hartuko dituztenak.
- Babes sozialaren sistema publikoan genero ikuspegia txertatu beharra, emakumeen egiturazko bazterkeria konpentsatzeko neurriak har daitezten.

- Etxeko langileen Gizarte Segurantzaren erregimena bere osotasunean erregimen orokorrarekin ekipara dadila eta, honekin batera, administrazioak kontrola dezala langile hauen egoera laborala, enpleatzaileek euren beharrak betetzen dituztela eta langileen eskubideak bermatzen direla.
- 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, pentsio baxuek eragiten dituzten pobrezia egoerak ekiditeko, pentsiodun guztiena eta, zehazkiago, emakume pentsiodunena.



## ERANSKINAK:

### 1.- HEGO EUSKAL HERRIAN EMAKUMEEK JASOTZEN DUTEN BATEZ BESTEKO PENSIOA, GIZONEZKOEN ALDEAN

**Hego Euskal Herrian emakumeez kobratzen dituzten pentsioak gizonezkoenak baino %40,6 baxuagoak dira, batz bestea.**

Gizarte Segurantzaren Institutuaren estatistiken arabera, **Hego Euskal Herrian emakumeez kobratzen dituzten pentsio guztien batz bestekoa** (haztatu edo ponderatua) **hilean 880,39 euro dira; gizonezkoenak, aldiz, batz bestea, 1.482,50 euro kobratzen dituzte.** Honek esan nahi du emakumeen pentsioa gizonezkoena baino %40,6 txikiagoa dela.

**Zenbatekoen batz bestekoa, pentsio motaren arabera (2018ko azaroko nomina):**

EAE PENSIO MOTA	EMAKUMEZKOAK		GIZONEZKOAK	
	Pentsio kopurua	Zenbatekoa (€)	Pentsio kopurua	Zenbatekoa (€)
Ezintasun iraunkorra	14.036	1.056,87	28.925	1.303,18
Erretiroa	134.241	955,07	223.961	1.611,22
Alarguntza	126.781	833,89	8.787	618,66
<b>Pentsio guztiak</b>	<b>284.022</b>	<b>891,97</b>	<b>270.404</b>	<b>1.509,62</b>

Nafarroa PENSIO MOTA	EMAKUMEZKOAK		GIZONEZKOAK	
	Pentsio kopurua	Zenbatekoa (€)	Pentsio kopurua	Zenbatekoa (€)
Ezintasun iraunkorra	3.741	962	7.135	1.220,25
Erretiroa	34.103	906,1	56.578	1.462,83
Alarguntza	27.510	756,90	2.199	561,67
<b>Pentsio guztiak</b>	<b>67.784</b>	<b>831,88</b>	<b>68.093</b>	<b>1.374,79</b>

Hego Euskal Herria PENSIO MOTA	EMAKUMEZKOAK		GIZONEZKOAK	
	Pentsio kopurua	Zenbatekoa (€)	Pentsio kopurua	Zenbatekoa (€)
Ezintasun iraunkorra	17.777	1.036,91	36.050	1.286,79
Erretiroa	168.344	945,15	280.539	1.581,29
Alarguntza	154.291	820,16	10.986	607,25
<b>Pentsio guztiak</b>	<b>351.806</b>	<b>880,39</b>	<b>338.497</b>	<b>1.482,50</b>

\* Umezurztasun pentsioak eta senideen aldeko pentsioak barne.

EAE	Aldea	
	Gizonak emakumeekin alderatuta	
Pentsio mota	Aldea eurotan	%
Ezintasun iraunkorra	246,31	23,3
<b>Erretiroa</b>	<b>656,15</b>	<b>68,7</b>
Alarguntza	-215,23	-25,8
<b>Pentsio guztiak*</b>	<b>617,65</b>	<b>69,2</b>

Nafarroa	Aldea	
	Gizonak emakumeekin alderatuta	
Pentsio mota	Aldea eurotan	%
Ezintasun iraunkorra	258,25	26,8
<b>Erretiroa</b>	<b>556,73</b>	<b>61,4</b>
Alarguntza	-195,23	-25,8
<b>Pentsio guztiak*</b>	<b>542,91</b>	<b>65,3</b>

Hego Euskal Herria	Aldea	
	Gizonak emakumeekin alderatuta	
Pentsio mota	Aldea eurotan	%
Ezintasun iraunkorra	249,88	24,1
<b>Erretiroa</b>	<b>636,14</b>	<b>67,3</b>
Alarguntza	-212,91	-26
<b>Pentsio guztiak*</b>	<b>602,11</b>	<b>68,4</b>

\* Umezurtasun pentsioak eta senideen aldeko pentsioak barne

## 2.- JARDUNALDI PARTZIALAZ ARITZEN DIREN LANGILEEN PRESTAZIOAREN KALKULUAREN ADIBIDEA, INDARREAN DAGOEN ARAUDIAREN ARABERA

Indarrean dagoen araudiaren arabera eta oro har azalduta (hau da, prestazio bakoitzaren zehaztasunak alde batera utzita, kasu partikularren zailtasunek txosten honen xedea lausotuko luketelako). Kotizazioen zenbaketa bi helbururekin egiten da:

- 1.- Exijitzen den gutxieneko kotizazio aldia betetzen ote den zehazteko.
- 2.- Pentsioaren zenbatekoa zehazteko.

**1.- Prestazio bakoitzerako exijitzen den gutxieneko kotizazio aldia betetzen ote den egiaztatzeko, partzialitate koefiziente orokorra zehaztu behar da.**

Hala ezarrita duten prestazio ekonomikoetarako exijitzen den gutxieneko kotizazio aldia kalkulatzeko, jardunaldi partzialeko lanaren kasuan, kotizazio aldi orokorrari partzialitate koefizientea aplikatu behar zaio.

Erretiro pentsiorako eskubidea edukitzeko, gutxienez, 15 urte/5.475 egun kotizatu behar dira.

Adibidea: demagun langile batek honako jardunaldi hauek egin dituela:

- 1.695 egun, jardunaldiaren %50az
- 750 egun, jardunaldiaren %40az
- 1.200 egun, jardunaldiaren %30az
- 1.850 egun, jardunaldi osoz

**Kotizazio egun teorikoak, guztira: 3.357**

- 1.695 egun jardunaldiaren %50az =  $1.695 \times \%50 = 847$  kotizazio egun teoriko
- 750 egun jardunaldiaren %40az =  $750 \times \%40 = 300$  kotizazio egun teoriko
- 1.200 egun jardunaldiaren %30az =  $1.200 \times \%30 = 360$  kotizazio egun teoriko
- $847 + 300 + 360 =$  jardunaldi partzialeko 1.507 egun akreditaturik

$1.507$  egun jardunaldi partzialaz +  $1.850$  egun jardunaldi osoz =  $3.357$  kotizazio egun teoriko guztira.

**Altan egondako egun errealak, guztira (bai jardunaldi partzialaz, bai jardunaldi osoz): 5.495**

$1.695 + 750 + 1.200 + 1.850 = 5.495$  egun altan.

**Partzialitate koefiziente orokorra: %61**

Kotizazio egun teoriko guztiak : altan egondako egun erreal guztiak = partzialitate koefiziente orokorra  $\frac{3.357}{5.495}$  egun teoriko :  $5.495$  egun erreal =  $0,61 = \%61$ eko partzialitate koefiziente orokorra

Hortaz, erretirorako eskatzen den epealdi orokorra, hau da, 5.475 egun (15 urte) bider partzialitate koefiziente orokorra (%61) = **3.340 egun**. Hauxe izango litzateke **erretiro pentsioa eskuratzeko beharrezkoa izango litzatekeen gutxieneko kotizazio aldia**.

Adibide honetako langileak erretiro pentsiorako eskubidea izango luke, 3.357 egun teoriko egiaztaturik dauzkalako (5.495 kotizazio egun erreal dauzkan arren).

## **2.- Pentsioaren zenbatekoa kalkulatzeko.**

Hauxe da EBeko Justizia Auzitegiak aztertu duen gaia (bere horretan honek ez luke balioko araudiaren izaera diskriminatzailea ezabatzeko; honekin batera, aurreko puntuan azalduakoa ere berrikusi beharko litzateke).

Egiaztatzen diren kotizazio egunen zenbaketak zehazten du prestazioa jasotzeko eskubidea izango dugun ala ez (gutxieneko gabealdia edo "karentzia aldia", lehen azaldu dugun bezala), baina, honetaz gain, prestazioaren zenbatekoa zein izango den finkatzeko ere erabiltzen da.

Kasu honetan ere, **erretiro eta ezintasun iraunkorreko prestazioetarako**, kotizazio egun teorikoak zenbatu eta 1,5eko koefizienteaz biderkatzen dira.

15 kotizazio urte egiaztatuko ez balira, ez litzateke oinarri arautzailearen %50a aitortuko. Jardunaldi osoko erregimenean %50 hori aitortzen bada ere, jardunaldi partzialaz aritu izanez gero, zati proportzionala baino ez da aitortzen. Honek pentsioaren zenbatekoa baxuagoa izango dela dakar, %50eko gutxieneko ehuneko ere jaisten delako eta, gainera, jardunaldi partzialeari dagokien oinarri arautzailea ere baxuagoa izaten da.

Lehenengo adibidearekin jarraiki:

- 1.507 kotizazio egun teoriko jardunaldi partzialaz x 1,5% = 2.260

- 2.260 kotizazio egun teoriko jardunaldi partzialaz + 1.850 egun jardunaldi osoz = **4.110 egun**. **Kopuru hau erabiliko da zehazteko ze ehuneko aplikatu behar zaion oinarri erregulatzaileari eta, horrela, pentsioaren zenbatekoa kalkulatzeko.**

15 urte kotizatu baditugu (hau da, 5.475 egun), legeak dio oinarri arautzailearen %50a aplikatu behar dela. Baina, kasu honetan, egun gutxiago egiaztatu ditugunez (4.110 egun), zati proportzionala aplikatuko da: **%37,5**.

Bestetik, pentsio eratorriei gutxieneko osagarria aitortzen zaie, baina hauen zenbatekoa ezin izango da pentsio ez kontributiboarena baino altuagoa izan. Beraz, pentsio oso baxuen kasuan, baliteke gutxieneko pentsioa bermaturik ez izatea, baldin eta osagarria pentsio ez kontributiboarena baino altuagoa bada.